



MATERIAL-XURGATZAILEAK – Erabili eta botatzeko materialak

Oinarrizko maila

Prozedura ireki bidez eta lehiaketagatiko
esleipen bidez kontratatzeko ingurumen irizpideak

1. Kontratuaren xedea eta zehaztapenak

1.1. Kontratuaren xedea

1. Koadroa

Kontratu honen xedea da, ingurumen-kalitateari dagokionez, gutxieneko irizpideak betetzen dituzten erabili eta gero botatzeko material xurgatzaileak erostea.

1.2. Esleipen-irizpideetan bete beharreko zehaztapen teknikoak eta zehaztapen baloragarriak

1.2.1. Produktuentzako ingurumen-irizpideak

2. Koadroa

- Erabili eta botatzeko material xurgatzaileek irizpide hauek bete behar dituzte:
 - Ezin dute lurrin edo bestelako perfumerik eduki
 - Ezin dute azalerako loziorik edo kremarik eduki
 - Ezin dute distira-emaile optikorik eduki zelulosa eta/edo biskosa aldeetan

Irizpide hauek ere aintzat hartuko dira:

Zelulosa eta/edo biskosarentzat

- Modu iraunkorrean kudeatutako edo birziklatutako baso-ustiapienetako zuntzen portzentajea.
- Zuntza zuritzeko prozesua erabat klororik gabea izango da.

Kotoi-zuntzentzat eta beste landare-zuntz batzuentzat

- Nekazaritza ekologikoko zuntzez egindako produktuaren portzentajea pisuan, estandar hauen arabera: Europako Batasuneko 2092/91 araudia (EE) 2008ko abenduaren 31 arte, eta 834/2007 araudia (EE) 2009ko urtarrilaren 1etik aurrera; AEBko Nekazaritza Saila-USDarenak (*National Organic Program*-en arabera) edo nazioarteko IFOAM erakundearena edo horren baliokideena.

- Zuntzak, eta zuritzen badira, klororik (TCF) gabeko zuritze-prozesu batekin.

Polimero eta plastikoentzat

- Plastiko halogenaturik eduki.
- Produktuari erantsitako ftalatorik eduki (100 ppm baino gutxiagoko kontzentrazioetako hondakin-substantzia gisa soilik).
- Arrisku-esaldi hauek dituen 67/548/EE Zuzentarauaren eta horren zuzenketa arabera sailkatutako sustantziarik edo produkturik: R23, R24, R 25, R26, R27, R28, R39, R40, R45, R46, R48, R49, R60, R61, R62, R63, R68.

3. Koadroa

Enbalajeari dagokionez, puntu hauek baloratuko dira:

- Produktua banaka enbalatua ez izatea.
- Plastikozko enbalajeak plastiko halogenaturik ez edukitzea.
- Enbalajeak duen materia birziklatuaren portzentajea.

2. Esleipen-irizpideak

Esleipen-irizpideetan xehetasunez azaldu behar da elementu baloragarri bakoitzari emango zaion garrantzia, adibidez:

4. Koadroa

- Produktuaren ingurumen-hobekuntzak, % 20raino:
 - Iturri iraunkorretako edo birziklatuetako zelulosa-zuntzen portzentajea, % 5eraino.
 - Kotoi-zuntzen edo nekazaritza ekologikoko beste zuntz batzuen portzentajea, % 5eraino.
 - Zelulosa-zuntzak (TCF), % 2.
 - Kotoi-zuntzak edo zuritu gabeko beste zuntz batzuk, edo TCF, % 2raino.
 - Plastiko halogenaturik gabeko polimeroak/plastikoak, % 2.
 - Eftalatorik gabeko polimeroak/plastikoak, % 2.
 - Substantzia edo produktu kimiko arriskutsurik edo toxikorik gabeko polimeroak/plastikoak, % 2.
- Enbalajeetako ingurumen-hobekuntzak, % 4raino:
 - Banakakoak ez diren enbalajeak, % 2.
 - Plastiko halogenaturik gabeko enbalajeak, % 1,5.
 - Enbalajeak duen birziklatutako zuntzen portzentajea, % 1,5.

Produktu bakarra erosten bada, zuzenean ezarriko dira irizpideak; kontratuan produktu bat baino gehiago badaude, ordea, irizpide baloragarriak produktu bakoitzaren arabera izango dira, eta mota ezberdinetako produktuen zenbateko osoari (kopurua) egokitu beharko zaizkio. Irizpidea edozein delarik ere, baldintza-orrian zehaztu behar da.

3. Eskaintza teknikoaren edukia: eskaintza-aurkezpena

Eskaintzen eta aurkeztutako agirien ebaluazioa errazteko, agiriak aurkezteko modu jakin bat eskatu behar da baldintza-agirian. Informazio hori eskaintza-deialdian zehaztu behar da, eskaintzaileek garaiz izan dezaten.

5. Koadroa

Eskaintzen den produktu bakoitzarentzat dokumentazio hau aurkeztu behar da, honela:

- a. **Produktuaren berriazko baldintzen fitxa** (1. eranskina)¹, behar bezala beteta, sinatuta eta zigilatuta. Horrekin batera gratatuta, nahitaezko irizpideak eta irizpide baloragarriak (eskaintzaileak hartutako konpromisoak) bermatzen dituzten egiaztagiri guztiak aurkeztu behar dira.
- b. [garrantzitsua dela uste bada] **Produktuaren erakusgarria**.

¹ Ikus 1. eranskina kapitulu honetako "Hornitzaileentzako egiaztapen - zeerrenda" atalean.